

BI MILA ETA HAMABOSTEKO AZAROAREN HOGEITA HIRUAN EGINDAKO APARTEKO BILKURAREN AKTA.

Arrietan 2015eko azaroaren hogeita hiruan, 19:30etan Udalaren Osoko Bilkura osatu du udaletxeko Bilkura Aretoan, Angel M^a Acillona Martínez alkate Jauna Udalburu dala, eta ondoren adierazoten diran zinegotziak dagozala:

Aitzbea Yarto Goiri
Elixabete Arriaga Calvo
Aitziber Ibinarriaga Delgado
Aintzane Enzunza Zorrozuak
Haizea Bengoetxea Andikoetxea
Gartzen Agirregoitia Abad

Carlos Laucirica Careaga idazkari izanda, eta kide kopuru nahikoa bertaratu dala ikusita, Udalburuak bilkura hasitzat emon dau, eta aztertzeko eta eztabaidatzeko dagozan aztergaiei ekin jake.

I.- BI MILA ETA HAMABOSTEKO AZAROAREN BIAN EGINDAKO BILKURAREN AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA.

2015eko azaroaren biko ohiko bilkuraren Aktaren zirriborroa irakurri ostean, Aintzane Enzunza Zorrozuak 2015eko Aurrekontuaren kreditu aldaketari dagokion III puntua, Libaoko frontoiaren itxiera proiektua “sartzeko erarengatik” ez zutela onartu azaldu du.

Behin aurreko puntua argituta, Udalbatzak, aho batez, Akta onartzea erabaki du.

II.- ALKATE DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Alkate Jaunak Alkate Dekretuen berri emon dau. Honako hau da edukia:

Alvarez Forestal enpresak aurkeztutako bermearen itzulketa eskaera.
Maskaru goikoan egiten ari diren lanei buruz Udal Arkitektuak egindako Informea.

Fakturen Dekretuak (Dekretu bi)

Peoi baten kontratazioa, Lanbide 2015eko Ebazpenaren arabera.

Naturgas Energiak aurkeztutako obra lizentzia eskaera.

Juan Jesus Ojinaga Esturok aurkeztutako obra lizentzia eskaera.

Rafael Bilbao Olaetak aurkeztutako obra lizentzia eskaera.

“Jata ondo” Landa Garapeneko Elkartek aurkeztutako obra lizentzia eskaera.

III.- 2015eko HAUTESKUNDE OROKORRETAKO MAHAIA OSATZEKO ZOZKETA.

Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren 26 artikuluan adierazitakoa betez, 2015eko abenduaren 20ko Hauteskunde Orokorretako Mahaia osatzeko zozketa egin da. Honako hau da emaitza:

MAHAIBURUA

TITULARRA.- Jose Ignacio Garcia Arbaiza.

1.go ORDEZKOA.- Luis Miguel Fernandez Rioja.

2. ORDEZKOA.- Maria Visitacion Altonaga Urrutia.

1.go BOKALA

TITULARRA.- Daniel Santamaria Sarasibar.

1.go ORDEZKOA.- Gorka Monasterio Legarretaetxebarria.

2. ORDEZKOA.- Maria Milagros Bilbao Ojinaga.

2. BOKALA

TITULARRA.- Ignacio Ayarza Nuñez.

1.go ORDEZKOA.- Santiago Gondra Zubieta.

2. ORDEZKOA.- Juan Manuel Garay Otazua.

IV.- “ARITZ LIBRE” MOZIOA.

Bere osotasunean babesten duen EH Bildu taldeak aurkeztutako “Aritz libre” mozioa irakurri da. Haizea Bengoetxea Andikoetxeak ez du eztabaidan parterik hartu ezta bozketan ere, parte afektatua delako. Udalbatzako gainontzeko zinegotziek, aho batez, mozioko bigarren eta hirugarren puntuak onartu dituzte. Honako hau da edukia:

2007an, Jarrai-Haike-Segi gazte antolakundeen kontrako Auzitegi Gorenaren ebazpena ekarriko zuena aurreikusita, Euskal Herrian hainbat ekimen abiatu ziren, haietako bat A-8an kateatu eta berau moztea izan zen. Ekimen horrek bi helburu nagusi zituen: batetik, euskal gazteriarengan izango zituen ondorio latzak salatzea eta bestetik, Euskal Herriaren alde lan egiteko eta militatzeko eskubidea aldarrikatzea.

Desobedientzia zibileko ekimen horregatik, 5 gazte epaituak izango dira, hoiengan artean Aritz Arrietako gure bizilaguna.

Ekimenetik ia 9 urte igarota, Abenduaren 1ean, Donostiako epaitegian epaituak izango dira, guztira 12 urte eta erdiko kartzela zigorra ezarri nahi diete, 2 urte eta erdiko kartzela zigorra ezarriz bakoitzari.

1- Aritz eta beste 4 gazteen aurkako epaiketa bertan behera uztea eskatzen dugu.

2-Epaiketa honen aurrean, gure elkartasun eta babesa adierazten diegu Aritz eta bere senideei.

3-Epaiketa politikoak bertan behera utzi eta konponbide garaian pausoak aurrera eramatea eskatzen dugu.

4-Deitzen diren deialdietan partehartzeko konpromesua.

V.- AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA “EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA”

“Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna” deritzon 2015eko azaroaren 25eko adierazpen instituzionala ikusita, alkate jaunak, Mungiako udaletxean

bi talde politikoek adostutako adierazpen instituzionala onartzea proposatu du. Udalbatzak, aho batez, onartzea erabaki du. Honako hau da edukia:

AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

“EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA”

Zemendiaren 25a dogu Nazio Batuen Erakundeak izendatu dauen “Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna” eta, horri lotuta, gure gaitzespenik argi eta sendoena agertu gura dogu emakumeen kontrako edozein indarkeria adierazpenen aurrean (indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala, sinbolikoa...), eta bardi-bardin agertu gura dogu edozein eratako sexismo-aztarna eta adierazpenen aurrean; bai sexismo-bide fin eta igarten gatxak bezain normalizatuak diran horreetan, bai sexuen araberako rol estereotipatuak ezartzen diran kasuetan, eta bai bizitzaren esparru askotan emakumeak ikusgai ez egotea eragiten dabenetan bere, besteak beste.

Genero biolentziaren kontra burruka egitea ez da aukera bat, erakundeon betebeharra da, eta bizi izatea maite dogun pertsona guztion eta erakunde guztion konpromisoa izan behar du. Bizitza hori sano latza izan da gure aldeko jarrera eta laguntza sendoa behar daben andra guztientzat; eta baliabideak bere behar ditue euren guztien barrea eta euretako askoren bizia indar bortitzez ezabatzen eta erauzten dabilen biolentziatik urteteko; beti dira gehiegi bardintasunean biziteko helburua gogoan daukan gizarte batentzat. Ezin dogu inondik bere onartu andrak hiltzen jarraitzen daben gizonak egotea.

Berretsi egin gura dogu, era berean, egitura-arazoa dala aurrean daukaguna eta, berorren oinarrietan andra eta gizonen arteko parekidetasun eza josita daukanez, ezinbestekoa dala bardintasun-politikak baliatzea, adituek zein nazioarteko erakundeek gomendatzen daben moduan.

Emakumeen aurkako indarkeria gizartearen egituran bertan dago itsatsita; hau da, oindino bere aukera desbardinak eskaintzen jakuz andrazkoei eta gizonezkoei, eta oindino bere pertsonen askatasuna jaiotza-sexuaren arabera mugatzen da. Hilten daben andra bakotxak min egiten deusku barru-barruan, maite daben guztientzako galera handia dalako eta, ganera, behar dan moduan laguntzeko gauza ez garala izan aurpegi-aurpegian dinoskulako... Berak bizi ebana horren larria bere ez zala uste izan ebana egon zalako, entzun gura izan ez eutsona egon zalako, bikotekidea behar dan moduan “eroaten” ez ekiala-eta kontra egin eutsona egon zalako, isilik egotea edota

salatu gura ez izatea aurpegiratu eutsona egon zalako... ulertu ez genduan batzuk egon ginalako eta denporaz heldu ez ginan erakunde batzuk egon ginalako. Horregaitik, ahalegina egin behar dogu beste era bateko gizartea behe-behetik eraikiten, pertsona guztiek eurek aukeratzen daben modukoak izateko askatasuna eskainiko dauen gizartea, noragurako bidean garatzeko aukera emongo deutsona pertsona bakotxari eta, giza-eskubideei begira, bardintasunezko eta begirunezko tratua opatuko deuskuna danoi.

Gure nahia eta helburua emakumeen kontrako biolentziari akabua emongo jakola bermatzen dauen gizartea da; hau da, helburu hori lortzeko, andra eta gizonen arteko benetako bardintasunaren oinarriak sendo ezarriko dituan gizartea. Bere lorpenakaz harro agertu ez eze, bere falta edo gabeziei urtenbidea emoteko bere lanari ekin egingo deutsona.

Indarkeriaren aurka agertu eta, horren ganera, andra eta gizonen arteko bardintasunaren alde argi eta ozen azalduko dan gizartea. Gure aldarrikapenaren jomuga pertsonen arteko hartu-emonak errespetuan, autonomian eta bardintasunean oinarrituko dituan gizartea da; eta errespetatzea ez da erasorik egin ez egitea bakarrik, ezpada ze, pertsona bakotxak, bardintasunik ezak dakarzan mugak gaindituta, bere bizitza-ibilbidea urratu ahal izateko askatasunaren bermea izatea.

Orain arteko neurriak ez dira nahiko, urrats gehiago emon behar da. Egoeraren gordintasunak azterketa kritikoagoa egitea eskatzen deusku, zertan gabilzan huts egiten jakiteko: erakunde, hedabide, hezkuntza... gizarte osoaren arazoa da.

Erakundeok, tratu onak sustatuko dituan gizartea eraikiteko orduan, geure erantzukizun sozial eta politikoa onartu behar dogu eta, horretarako, geure barruetako aurrerretxi, rol eta eguneroko jarrerak berrikusten hasi.

Horregaitik guztiagaitik:

- Konpromisoa hartzen dogu gure eskuduntzen esparruan udal politika aktiboa, integrala eta koordinatua garatzeko, tratu onen eta emakumeon eta gizonen arteko parekidetasunaren alde.
- Eta herritarrak gonbidatzen ditugu bardintasunaren aldeko konpromiso pertsonal eta kolektiboak hartu daiezan, urteko egun guztietan; eta, horregaz batera, zemendiaren 25a dala-eta burutuko diran ekitaldietan, gazteen arloko prebentzino-lanetan eta hezkuntzarako "Beldur Barik" ekimenean parte hartu daien.
- Biolentzia-era guztiak, makroak zein mikroak, desagerrarazoteko, biolentzia horri eusten deusien eta biolentzia hori zuritu eta babestu leikien jardun

guztiak salatu eta akabatu behar doguz. Eta, horrexegaitik, erasoen aurrean mobilizatzen eta kalera urtetan jarraituko dogu.

VI.- “2015EKO EUSKERAREN NAZIOARTEKO EGUNA” MOZIOA.

Udalbatzak, aho batez, “2015eko euskeraren nazioarteko eguna”, mozioa onartzea erabaki du. Honako hau da edukia:

“2015EKO EUSKERAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Abenduaren 3an, urtero lez, aurten bere Euskeraren Nazioarteko Eguna ospatuko dogu. Egun hori ospakizun eguna da bai, baina batez bere aldarrikapen eguna eta gure konpromisoak berresteko eguna da Arrietarrantzat eta, oro har, euskaldun guztiontzat. Izan bere, euskeraren erabilera normalizatzeko prozesua abiatu zanetik hona, hainbat aurrerapausu egin diran arren, bere egunerokoan euskeraz bizi gura daben herritarrei itzel kostatzen jake hori lortzea hainbat eta hainbat arlotan.

Normalizazio prozesu horretan aurrera egiten jarraitzeko, aurten Udalbatza Osoak, aho batez, plangintza barri bat onartu dau: Euskera Sustatzeko Ekintza Plana (2015-2017). Plan barri honek lehengo bideak jorratzen segitzeko eta aro barri bati atea zabaltzeko aukera eskaintzen deusku, baina argi dago euskeraren erabilera indartzeko, administrazioa ezinbestekoa bada bere, ez dala nahiko. Euskerea gizarte osoaren eta gutako bakotxaren ondarea eta tresna da, eta bere erabilera normalizatuko bada, guztion ahalegina eta konpromisoa beharko da, bakotxarena, talde guztiena eta administrazioarena.

Beraz, ezinbestekoa da plangintza eta proiektuez ganera, gizarte osoa konturatzea oraindik bidean gagozala eta guztion ardurea dala, ez dagoala erlajatzetik eta urteotan egindako aurrerapausuak ez dirala uste dogun bezain egonkorak. Gizarte osoaren alkarlanean dago gakoa, eta horixe da Udalak koordinatu eta kudeatu gura dauen “Euskera Plana”.

Hori guztia kontuan hartuta, Arrietako Udalbatzak ondoko konpromisoak hartzen ditu euskeraren normalizazio-prozesu horretan gure herriak aurrerapausu sendoak emoten segidu daian:

1.- Udalak konpromiso hartzen dau aurrerantzean bere, orain arteko bidean sakontzen jarraituta eta bide barriak bilatuta, herrian euskeraren erabilera normalizatzeko beharrezkoak diran proiektuak eta lana diseinatzen, eguneratzen eta zabaltzen jarraitzeko, euskeraz bizi gura daben herritarrek eskubide hori bermatuta eukidaien.

Lan hori herri mailan (familietan, ikastetxeetan, kalean, aisian, ...) eta administrazio mailan (administrazioaren eguneroko lanean; administrazioa hartzailea barik eragile izan daiten) garatuko dau. Eta horretarako, beharrezko diran baliabide ekonomiko eta pertsonalak jarriko ditu.

2.- Udala konprometitzen da aitatuko plan eta proiektu horreek herritarrak adostuten, herrian dagozan beharizanei hobeto erantzuteko eta herrian eragin handiagoa izan daian. Horretarako, Euskeraren Aholku Batzordea dinamizatzen eta bere osaera gaurkotzen jarraituko dau Udalak.

3.- Herriko eragileek –alkarte, talde zein bestelakoek–euskeraren erabilera normalizatzeko egiten dabean ekintzetarako alkarlana eta laguntza eskaintzen

jarraituko dau Udalak; eta euskararen inguruan dabilzan eragile guzti horreen arteko koordinazioa errazten.

4.- Udalbatza honetako kideok, herritarren ordezkari lez, gure hizkuntzaren normalizazioan egile eta eragile izateko konpromisoa hartzen dogu eta dei egiten deutsegu herrikide guztiei, zein bere mailan egile eta eragile izan daitezten, familian, kalean eta lanean, guztion ahalegina behar da eta.”

Ostean, Aintzane Enzuna Zorrozuak, euskera eta “Berba lagun” ikastaroei dagokienez, ikasturte honetarako, “Berba lagun” ikastaroa bertan behera utzi dela azaldu du eta euskara bultzatzeko Udalaren konpromiso serioa eskatu du.

Aitziber Ibinarriagak “Berba lagun” ez dela egin, epe barruan, hiru pertsona baino ez zeudelako izena emanda esan du eta interes askorik ez dela egon, baina Udalak proiektua antolatu eta bultzatu egin duela.

Alkate jaunak, hau dela eta, euskara teknikariarekin, ordezko programa bat antolatzen ari dela adierazi du Arrietan euskara bultzatzeko asmoz.

VII.- NORBERAK LEKARKEENA.

Gartzen Agirregoitia Abadek egindako galdera.

Gartzen Agirregoitia Abadek ea 2016ko udal Aurrekontua prestatzen ari den galdetu du.

Alkate jaunak prestatzen joango dela adierazi du.

Aitziber Ibinarriagak kultura plana prestatzen ari dela esan du, herritarrekin informazio bilerak egiteko eta 2016ko aurrekontuan sartzeko.

Aintzane Enzunza Zorrozuak egindako galdera.

Aintzane Enzunza Zorrozuak Arrietako jaietan ikurriñari egindako omenaldiari buruz berba egin du. Alkate jaunak eta EAJko hiru zinegotzik parte hartu zutela eta bere ustez, parte hartzaileagoa izan beharko zukeela adierazi du eta aurretiaz eta beste era batera antolatu beharko litzatekeela.

Alkate jaunak, Udalak aurreko urteetan bezala egin duela esan du eta jaien programaren barruan zegoela eta EH Bilduko Zinegotzi bati abisua emon ziola guztiek parte hartzeko.

Eguneko gai-zerrendan beste aztergairik ez dagoenez, Alkate jaunak amaitutzat jo du bilkura zortzi eta erdietan. Bilkura horren barri honako akta honetan jaso da, eta hurrengo Osoko Bilkuran aurkeztuko da onartu ahal izateko